

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

NEKAZARITZAKO IDAZKARITZA TEKNIKOA

19/2024 Foru Agindua, uztailaren 18koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintza ustiattegietan "Euskal Herriko Mendiko Zaldia" arrazako hazitarako zaldia eskuratzeko laguntzak deialdiari eta kreditu erreserbari 2024ko urterako

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 30eko 25/2023 Foru Dekretuaren bidez, onspena eman zitzaien Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintza ustiattegietan "Euskal Herriko Mendiko Zaldia" arrazako hazitarako zaldia eskuratzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileei.

Lehen aipatutako dekretu arautzailearen 6. artikulua dio onetsiko dela laguntzetarako kasuan kasuko deialdia, eskaerak aurkezteko epea eta eskaerei buruzko ebazpena emateko kredituak zehaztuz.

Aipatutako dekretu arautzailearen 10. eta 11. artikuluen arabera, laguntzen urteko deialdiak diruz lagundu beharreko inbertsio mota zehaztuko du, bai eta laguntzaren gehieneko intentsitatea ere, eta jarduketa guztietarako laguntzaren ehunekoa eta ustiategi edo inbertsio bakoitzeko laguntzaren gehieneko eta gutxieneko zenbatekoak adierazi beharko dira.

Nahitaezko txostenak aztertuta, horregatik eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea norgehiagoka bidez dirulaguntzak emateko Nekazaritza Sailaren 2024. urterako deialdiari. Hona hemen xehetasunak:

1. Laguntza motak eta diruz lagundu daitezkeen inbertsioak

Deialdi honetan diruz lagundu ahal izango dira honako inbertsio hauek:

12 hilabetetik gorako zaldien (Euskal Herriko Mendiko Zaldia arrazako zaldia) erosketa, hazitarako erabili ahal izateko.

Erosketak diruz lagundu ahal izango dira, gastuak 2024ko urtarrilaren 1etik eskaerak aurkezteko azken egunera arte egin badira.

2. Eskaerak aurkezteko epea, lekua eta modua

Eskaerak aurkezteko hogeita hamar egun baliodun izango dira, foru dekretu hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera, alde batera utzi gabe Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritakoa. Eskaerak leku hauetan aurkeztu ahal izango dira:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
- Vitoria-Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroak eta eskualdeko nekazaritza bulegoak.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozein. Hala eta guztiz ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua dioenari jarraiki, nahitaez aurkeztu beharko dute era telematikoan, egoitza elektronikoaren bidez (<https://egoitza.araba.eus/es/-/ayudas-destinadas-adquisicion-reproductores-selectos-de-ganado-equino>) edo

beste administrazio publiko batzuen erregistro elektronikoen bidez, pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, nahitaez bete beharreko jarduera profesional batean dihardutenek eta jarduera horren egikaritzan egiten dituzten izapideetan, eta administrazioarekiko harreman elektronikoa izatera behartuta dagoen interesdunik ordezkatzeko dutenek.

Laguntza eskaerak formatu eta inprimaki normalizatuan aurkeztu behar dira.

3. Laguntzen zenbatekoa

Laguntza erosketaren kostuaren ehuneko 30erainokoa izango da, eta gehienez ere 1.000,00 eurokoa eskaera bakoitzeko. Ez da gutxieneko zenbatekorik aurreikusten.

4. Kreditu erreserba

Arabako Foru Aldundiaren 2023rako gastu aurrekontuko (2024rako luzatua) 40102. G/419402/77000401 «Zaldi azienda hobetzeko laguntzak» partidaren kontura, 3.000,00 euro erreserbatzen dira.

Kreditu hori zenbateko gehigarrien bidez handitu ahalko da urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidaren edozein zioengatik gerta daitezkeen kreditu gehikuntzaren bidez ere.

Bigarrena. Foru agindu honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta beronen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko eman duen organoari berari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 18a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMI AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNANDEZ SARABIA